

## **ABERRI BI, BIHOTZ BERETIK**

**Joan Mari Torrealdai**

### **AITZIN-HITZAK: HIRU ETAPA**

Martin Ugaldereen bizitzak hiru etapa ditu argi argi.

Lehena, 25 urtekoa, Andoaingoa, nolabait esan, 36ko gerra eta soldaduska tartean direla, Martin Caracasera joan artekoa.

Bigarren aldia, Caracasekoa, 22 urtekoa, familia sortu eta profesionalki hazi eta hezi egin zenekoa.

Eta hirugarrena, azken 31 urteotakoa, itzultzea erabaki eta Hondarribian bizitzen jarri zenekoa.

Zertan esanik ez da hiruak direla interesgarriak, eta hertsiki elkarri lotuak direla hiruak. Osotasunean ez bada, aldi edo zati batek ez du esplikazio nahikorik bere baitan.

Hitzaldi honetan, hala ere, moztu beharrean gaude, luzeegi ez jotzearren. Azken bi aldietan barrena ibiliko gara. Arinki eta gaingiroki bada ere, Martin osoa ikusiko dugu bertan, ez honen alderdi bat. Martinen kasuan, hain da aberatsa, alderdi bakar bat ikustea oso da erraza, Martin kazetaria, Martin idazlea, Martin kultur gizona, Martin politikoa...

25 urterekin hartuko dugu Martin eta gaur arteko bizitzaldian lagunduko diogu. Hori bai, gogoratu, gogoratu bakarrik, 25 urte gazte horiek ez zirela lauak eta samurrak izan.

### **CARACAS: 1947-1969**

Has gaitezen galdetuz: Zertara doa Martin Ugalde Venezuelara, 25 urte gazterekin?

Familian bizitzera. Aitarekin bizi gabe, 10 urte. Anaia ikusi gabe, 10 urte. Gerraren ondorioak: Martin amarekin bakarrik Andoainen; aita, abertzalea, gerran parte hartua, Ameriketara ihes egina. Anaia, gerrako haurra, Odessan; eta oraintxe aitak Caracasera eramana.

Martin Ugaldek ez du familia osatzea beste helburu jakinik. Berak ere ez daki zer bilakatuko den, ez daki zertarako balio duen. 25 urte ditu, baina ezin izan ditu bere zaletasunak garatu.


Zaletasun batzuk baditu, hori bai:

- 1) ikastea beti gustatu izan zaio. Ez du aukera handirik izan baina ikasi ikasi du Andoainen, Bilbon, Donibane Garazin eta Donibane Lohizunen. Gauza handirik ez, egia esan;
- 2) Futbola ere gustokoa du. Ibili da futboleant, Andoainen, Morvianen, Garazin, eta ibiliko da Caracasen ere. Profesionala izatea ere pentsatu zuen inoiz, baina isurketa sinovial-a izan zuen;
- 3) idaztea ere gustatzen zaio. Amets bat bezala da. Askok irakurri du, Donibane Lohizunen ere bai, literatura frantsesa. Herriko kronikak idatzi ere egiten zituen Andoainen, DVn.

Hirugarren aukera izan da, azkenik, Martin Ugalderekin bidea: idaztea.

### **Kazetaritza**

—Luze baino lehen garbi ikusi zuen kazetari izan nahi zuela berak. Nola izan, ordea?



Martín de Ugalde

Hasiera ez zuen oso animagarria izan: El Nacional-era artikulu antifrankista batzuk bidali zituen eta ez zizkieten publikatu. Kazetari gisa lan egiteko karneta behar zen. Karneta eskatzera joan eta horretarako kazetari gisa lan egin behar zela enpresa batean. Irteerarik gabeko bidea zirudien.

Linotipista euskaldun bati kontsultatu zion Martinek, eta honek esan zion ofizio horrek ez zuela piperrik balio, ez zuela prestigiorik; eta ea zer egin nahi zuen “musiu” batek, atzeritar batek, bertakoek kopaturik, asebetarik daukaten sektore batean?

–Hala ere, Martin Ugalde ez da desanimatzen. Gauza izan da General Motors-eko lanpostua, finkoa eta ondo ordaindua, utzi eta hiritik bat kobratuz “free lance” gisa erreportaiak egiten hasteko, astean bi. 27 urte ditu orduan. “Hasta gratis hubiera trabajado” idatzi du berak, kazetaritzan lanegin noski.

–Gero dator arrakasta: “Elite” aldizkari grafikoko zuzendari, ESSO taldeko “Nosotros” barne-aldizkariaren eta “El Farol” aldizkari kulturalaren zuzendaritza, etab. 40.000 aleko tirada zuen “El Farol”ek eta “Nosotros”ek 15.000koa.

## Idazle

–Idazle gisa ere Martin Ugaldek sekulako arrakasta izan du Venezuelan. Argitara eman dituen liburu, jaso dituen sari eta eskatu dizkio-ten lankidetzak dira horren lekuko.

- Gaztelaniaz 6 liburu eman ditu 10 urtetan, 1956tik 1966ra
  - 1957: *Un real de sueño sobre un andamio*
  - 1958: *La semilla vieja*
  - 1963: *Cuando los peces mueren de sed*
  - 1964: *Las manos grandes de la niebla*
  - 1966: *Unamuno y el vascuence*
  - 1968: *Las rejas están sembradas en el jardín* (argitara gabea)
- Aldizkari eta egunkari garrantzizkoenetan kolaboratu du
- Literatur saririk estimatuenak irabazi ditu

Zer egin du Martín Ugaldek horra iristeko? Lan, lan eta lan. Bokazioa izatea ez baita aski.

–Arano irakaslearekin sistematikoki irakurtzen du literatura. Ez literatura espainola bakarrik, latinamerikarra, eta bereziki venezolarra

–EEBBra doa ingelesa ikastera, eta horrek asko laguntzen dio ESSOn sartzeko

–EEBBn kazetaritzako masterra egiten du, Evanston-en

–Asko kostatu zaio literato bezala bertako bihurtzea: Venezuelako tonua, azentua, lexikoa, gaiak bereganatu behar izan ditu

Jarrera erabakior bat dago bide arrakastatsu honen abiapuntuan, hau guzti hau posible egiten duena: integrazio-jarrera, bertakotu nahia. Edo nahiago baduzue, integrazioa beste jarrera sakonago baten emaitza edo ondorioa da: maitasuna. Colon-en antipodetan dago Martin Ugalde: Martin Ugalde konkistatzaile izan beharrean konkistatua izan da. Deskubrimendua egin du sekulakoa, askatasunarena. Eta horrek konkistatu du bera.

Zer deskubritzen duen?

–Ezagutzen ez duen askatasuna. Askatasuna, idazteko, nahi duena esan ahal izateko. Askatasuna ez da kontzeptu bat, baizik eta airea edo giroa, atmosfera. – Hori zer zitekeen Martin Ugalderentzat? Presoarentzat zer da askatasuna?

–Ezagutzen duen gaztelania. Baina kasu, ez espainola, gaztelania Venezuelako hizkuntza gisa, errebeldiaren gaztelania, ezespainola eta antifrankista hain zuzen ere.

## **Integrazio arrakastatsua**

Bi hitzetan esanda:

–50eko hamarkadan lanaren poderioz sekulako gorabidea hartu du Martin kazetariak.

–60ko hamarkadan Caracaseko gizartean erreferentzia da Martin Ugalde: errespetoz, maitasunez (eta “inbidi txikiz” ere bai) ikusia. Kazetarien artean autoritatea. Literaturgileen artean hoberenetakoa.

–Pelay Orozkoren hitzetan, Martin Ugalde “irabazle” deitzen den horietakoa da, bere ofizioan.

“Jerga modernoan, “irabazle” esaten zaion horietakoa izan zen. Baina bere seme-alabekin katea etengo zen beldur zen. Bere egoera, inondik ere, inbidia emateko modukoa zen. Baina bapatean irtenbide bakarra izan zezakeen kezka sentitu zuen. Eta hala, gauek goizera, hautsi egin zuen izerdiz lortu eta etorkizun ezinhobea eskaintzen zion Eldorado harekin, bere lur zaharrera itzultzeko”.

Aiurri-ko artikulu berean idatzia utzi du beste hau ere Pelay-k:

Martin eredu bat izan da giza elementu bezala. Hasteko, zailtasunak zailtasun, beti lortu du bizimodua literaturatik ateratzea, gainontzekoak ‘second métier’ izan dugunean, hau da, laguntza modukoa. Aipatu ditudan zailtasun horiek izan zituen arren, Martin profesional handia bihurtu zen”.

Azpimarratu nahi ditut: zailtasun eta izerdiz lorturiko egoera –irabazle– inbidia emateko moduko status soziala –etorkizun ezinhobea– literato profesionala - Eldorado.

Hau esan bezain laster erantsi behar da Martin Ugalde pertsona eta Martin Ugalde idazlea ez dela maila goreneko gizarte-modu horren zerbitzari. Bere konpromisoa jende xehe eta sofrituarekin da, nahiz inmigrantea, nahiz bertako baztertua.

Martin Ugalderen argazki-albumak ezin hobeto islatzen du pertsonaia bat zela Martin Ugalde gizarte hartan: nazioburuekin –kazetaritzako eta literaturako “la crème de la crème”– laneko argazkiak bulegoan eta herrietan –familia– Agirre lehendakariarekin - Euskal Etxea. Martin Ugalderi buruzko liburu (auto)biografikoa da horren lekuko paregabea. Begiratu bertako argazkiak.

### **“Paradigma de la inmigración buena”**

Goitik behera integratzen da Martin Ugalde Caracaseko gizartean, Venezuelako herrian. Bere beste aberria da hau, ez bigarrena. Bestea. Mono Gonzalez-ek esan omen zuen hori, Txileri buruz, eta Martin Ugalderi gustatu egin zitzaion. Beretzat hartu zuen esaldia. Inportantea da diferentzia. Ez bigarren aberria baizik bestea.

Honela idatzi zion berak 1961ean, lagun bati Evanston-etik:

Los 14 años que yo llevo en Venezuela han sido fecundos y felices, y allí he aprendido a querer a otra tierra y a otra gente. Como decía el Mono Gonzalez con respecto a Chile, Venezuela no es mi segunda patria, sino mi otra patria”.

Andoingo herriak eskaini zion omenaldikoan, 1997an, Laurentzi Odriozola, euskal jatorrikoa eta kazetaria, Venezuelatik hona etorri zen, Martin Ugalderi buruz hitzegitera.

Berak hitzaldian esandakoa asko gustatu zitzaidan: “Paradigma de la inmigración buena” da Martin.

Batetik Martin Ugalde euskalduna da, eta horretaz inork ez zuen zalantzarik Venezuelan. Baina bestetik, Martin Ugalde venezolarra da, osoki bertakoa buru-bihotzez, nazionalitatez ere bai. Batak ez du bestea ukatzen, Martinen baitan, elkarrri enbarazorik egin ere ez, nonbait. Elkarrosatu bai, Martin Ugaldek bakarrik etikoki eta estetikoki asma zezakeen modu harrigarrian. Maitasun jarreran dago sekretua, dio berak.

### Venezuelan ere euskaldun

–Bestalde, Venezuelan bizi dela jatorrizko aberriari eman dizkion maitasun-frogak ez dira bertakoari eman zizkionak baino txikiagoak. Jasoko duen esker ona izan da agian eskasagoa, parentesi artean esanda.

Aipa ditzagun maitasun-froga horietako batzuk:

– Euskal Etxean burubelarri sartu da, hasieratik, modernizatze eta irekitze aldera. Lehendakari ere izan da. Bertako aldizkariak zuzendu eta gidatu ditu, idazteaz gainera. Eusko Gaztedi mistoa ere sortu zuen, eskandalu eta guzti.

– Bost obra (eta artikulua ugari) idatzi ditu euskaraz Caracasen bizi delarik ere:

- *Iltzalleak* (1961),
- *Ama gaxo dago* (1964),
- *Gurpegin aspaldi gertatua* (1965), argitaragabea
- *Umeentzako kontuak* (1966),
- *Panpiñak* (1968)

– Alderdi barruan Europa eta Venezuela, eta inoiz LatinAmerikaren, arteko zubia izan da maila bat baino gehiagotan. Aldizkari pila bat bere eskuetatik pasatu ohi zen, banatzeko, kobraketak egiteko, etab.

– Eta ez dakit hemen aipatu behar dudana ala beste nonbaiten: Euskal Herriarekin eta euskaldunekin han zegoela izan zituen harremanak. Gutunketa lekuko.

Martin Ugalderen 3.000 gutun baditut eskuetan, jasoak zein berak bidalitakoak. Martin Ugaldek berak idatziak 1.300 bai. Ez dakit zenbat diren euskaldunei zuzenduak, ez ditut zenbatu, baina asko. Familiari, herriko lagunei, Alderdikideei, kulturako jendeari.

Eskutitz hauetan zer arazo ez da jorratzen!: literatura, euskara, euskal kultura, eta gehienbat politika. Martin Ugalderen burua eta bihotza bor-bor dago gutun horietako askotan.

## 1969: ITZULERA

### Itzultzeko arrazoiak

“Zertara doa Martin Ugalde Venezuelara?” galdetuz hasi gara.

“Zertara eta zergatik dator bueltan?” galdetuz jarrai genezake orain.

Entzun dugu Pelay Orozko esaten Martinek goizetik gauera hautsi egin zuela izerdiz lortu eta etorkizun ezinhobea eskaintzen zion Eldorado harekin eta bere lur zaharrera itzultzen dela.

Itzultzeko arrazoiak?

Honoko hauek aipatuko nituzke nik:

–bat, bere buruaren prestakuntza jada egina, Evanston-en, eta Euskal Herrian zer emanik bazuela uste zuen

–bi, familia euskaraz hazi eta hezi du, baina arras euskalduna izatea nahi du, eta orain da garaia, bertan txertatu aurretik

–hiru, Agirre lehendakaria hila da eta hark hutsik lagatako lekua askoren artean bete beharko dutela senditzen du. Eta asko horietako bat bera da

–lau, Alderdi barrukoekiko desafio bat ere bai: alderdi barruan kritikoa da, batez ere euskararekin, eta frogatu nahiko lieke esaten duena egi-teko gauza dela.

–bost, euskalduna da; bi aberri ditu, bai, baina azken batean bere-berea bat.



# ITZULERA BATEN HISTORIA

*Martin Ugalde*



*euskal literatura-elaberria*

ELKAR



## Eldorado atzean utzita itzuli zen Martin

Itzultzearena ez da bapatean hartutako erabakia. Atera orduko itzuli nahi omen zuen, baina 1962an hartu zuela “barne-erabakia” esango nuke, Evanston-en dagoela.

–Itzulera gauzatze bidean, gutunak bati eta besteari idazten hasten da: Europara, ez nahitaez Euskal Herrira itzultzeko. UNESCO inguruan ikusten du lanbidea

–1967: Emaztea eta hiru haurrak Irunera datoz, aita gabe. Irun leku estrategikoa da, mugatik bertara.

–Jose Mari Iziar-ekin egiten du kontsulta, eskolaz

–Caracas-eko ondasuntxoak saldu eta Hondarribian etxebizitza bat erosten du emazteak

–1969an Martin Ugalde itzultzen da betirako Euskal Herrira, Hondarribiara

Historiatxo honek kontsiderazio pare bat merezi du.

–Zer utzi duen Venezuelan?

–gurasoak, guraso zaharrak, eta anaia, anaia bakarra

–status sozial oso ona

–karrera profesionala, irabaziak, sariak, literatura

–etorkizun inbidigarria. Kontuan hartzen ez dugun puntu bat seinlatu nahi dut: 48 urterekin uzten du Venezuela. Idazle batentzat suizidioaren parekoa da. 55 urte inguruan ematen omen du idazleak hoberena, dio literaturaren soziologiak. Hoberena emateko zegoela dator Martin Ugalde. Erabaki hori ez da txantxetakoa.

Hauxe da Martin Ugaldereen ezaugarrietako bat: erabakia hartu, hartu behar duelako hartzen du, kontzientzia-problema da, eta ez ditu ez kostuak eta ez ondorioak sekula kalkulitzen. Kosta ahala kosta.

–literatur kritikaririk hurbilena ere galdu egiten du, bere emaztea, oraingo gaiek ez baitute tiratzen, eta euskara ez du horren ondo menderatzen.

## Euskal Herria argazki hautsia da

Zer aurkitu du hemen?

Isiltasuna, ausentzia, urrutitasuna, mesfidantza. Eta bronka alde guztietatik.

Nik esan nezakeena baino askoz hobe esana du Martinek emigrantearentzat jaioterria argazki bailitzan gelditzen dela. Argazki zaharkitu baten tankera du horrek askotan. Martinen kasuan ez: harreman bizia zuen bertoko jendearekin, segitzen zituen hemengo arazoak.

Baina seguru nago Euskal Herriaren argazki hori uste baino haustiagoa aurkitu zuela bueltakoan.

—Euskal munduaren jarrera

Biblian agertzen den hura datorkit bapatean gogora: Beretarrenera etorri zen eta ez zuten ezagutu, aintzat hartu. Hemen bere literatur lanak ez du izan merezi duen oihartzunik, aipamenik, arrakastarik, ez euskarazkoak eta ez erdarazkoak.

Aitona bihurtu arte itxaron dugu Martin Ugalde berreskurazeko.

Martín Ugalderean bihotzean badago arantza hori.

Esplikazioren bat izan behar du honek, ez dakit ziur zein.

Ez dut uste kontsignarik egon zenik, baina... Hona arrazoi posible batzuk:

- 1) bere obra hoberena erdaraz egin zuen eta etorri zenean ere erdarari lotu zitzaion; urte haietan gure belaunaldiak elebitasunari gerra deklaratu zion; gerra edo gurutzada
- 2) gerraosteko euskal kulturak, euskal literaturak Martin Ugalde gabe egin zuen bidea eta praktikan “belaunaldi” baten patrimonioa zen; mundu itxia, txikia, lagunartekoa; beste belaunaldi batekoa zen Martin, aurreko belaunaldikoa. Puri purian zegoen belaunaldi literario horrek, Arestirenak, (nolabait esan) ez zuen aintzat hartu Martin. Belaunaldi berriagoko batek etorri behar izan du belaunaldi hartako idazle modernoa dela Martin errebindikatuzera, Koldo Izagirrek.

### 3) PNVkoa izatea ez zen sarrera-txartelik hoberena giro hartan

Dioguna: salbuespenak salbuespen, euskal kulturako mundutxoak ez du Martin Ugalderen erdal obra ezagutu eta euskarazkoa ez du aintzat hartu, oso berandu arte.

Erdal munduaren jarrera

Eta erdal munduak zergatik ez du estimatu behar zuen tamainan Martin Ugalderen literatur obra, erdarazkoa?

- 1) Arrazoi nagusia agian zera da, bere testuinguru naturaletik kanpo dagoela Martin Ugalde, Venezuelatik kanpo. Eten horren ondorioak dira. Han zuen arrakasta. Bere obra literarioa oso “venezolarra” da, han kokatua eta integratua. Nola lortu hemen arrakasta?
- 2) Eta besteko: literatur giroa neurri handi batean edozein hizkuntzatan ere (gaizki esanda) koadrila-fenomeno bat dela eta horrez gain zenbait kritiko eta argitaletxeren interesetara zegoela neurri batean.
- 3) Eta seguruenik: Martin Ugalde abertzale izateak ez zion asko lagunduko Espainian zehar.
- 4) Eskerrak, 1992 dela eta, EUTGko taldeak, Ascunceek eta Betik bereziki, Martin Ugalderen obra amerikarra ezagutzera eman eta obra hori azertuz hutsune edo hutsegite hori erreparatu duten. Autorea baino 23 urte beranduago itzuli da hona bere literatur lan amerikarra.

1992an bi obra publikatu zizkion Bartzelonako Anthropos-ek: *De la inmensa soledad del hombre* eta *De la nueva tierra y los inmigrantes*. Urte berean Ascunceren eskutik Eusko Jaurlaritzak argitara eman zion *Mientras tanto fue creciendo la ciudad*.

*Mea culpa*-rik?

Uste dut euskaltzaleok bederen “mea culpa” kolektibo bat egin beharrean bagaudela.

Ez dugu Martin Ugalderen traiektoria ulertu.

Beste inon ez dakit baina gurean sekula egin ez dena egin du Martin Ugaldek geure begien aurrean eta gu ez gara enteratu: erdaraz arrakasta izan, eta euskarara pasa. Erdal idazle izatetik euskal idazle izatera etorri. Korrontearen kontra edo Jon Juaristiren aholkuen aurka. Jon Juaristik, izan ere, euskal idazle on urri horiei (euskal idazle onak gutxi batzuk omen baitira) esaten zien euskaraz idaztea utzi eta erdaraz idaztera pasa behar zutela.

Ez dugu baloratu Martin Ugalderen jarrera.

Elebitasuna euskararen aurka proposatzen zigutenei Martin Ugalderen eredia begien aurrean jartzeko ez dugu abilitaderek izan. Gogotan dituzue polemika haiek: euskal idazle vs escritor vasco?

Bestaldera jokatu dugu. Erdaraz idaztearen “bekatu mortala” Martin Ugaldek jasan du, legendarduna bailitzan baztertu dugu.

Martin Ugalde bera saiatu zen urte haietan argi piska bat egiten. Nahikoa alferrik. Polemikan ibili zen Raúl Guerra Garridorekin, Xabier Kintanarekin.

Gogoan dut 1969an, oraindik Caracasen, nola hasarratu zitzaion Txillardegiri erdaraz idazten duena “espainolizatza” jotzen zuelako honek. Bide asko daudela helburu berera iristeko esaten dio Martinek, eta egia askotan zeharbidetik ibili ohi dela.

Arrazoi osoz dio Koldo Izagirrek, Martin Ugalde ez dela idazle elebiduna baizik eta idazle bi bihotz beretik.

Bronka, hasarreak.

Ertortzearekin batera, H-aren arazoarekin aurrez aurre topo egin du Martinek. Euskara batuaren apostua egin zuen.

Alderdian (Eusko Alderdi Jeltzalean) sektore batek gerra egin zion: mehatxuak, telefono-deiak, mexpretxuak, espaloiz-aldatzeak. H-a Jainkoaren eta Arana Goiriren aurkakoa bide zen zuzen zuzenean.

Eskerrak Juan Ajuriagerraren laguntza izan zuen. Bai Alderdi-n, bai Deia-n eta bai Kontseilu Nagusiaren Boletinean.

H-aren auzian asko sofritutakoa da Martin. Aitorpen izugarri bat ere irakurri diot: hain minbera zen arazoa, euskaraz idaztea uztekotan egona zela horregatik.

## LANAK ETA EKINTZAK

Bai, oso aldapa gora gertatu zaio Martin Ugalderi itzuli izana. Baina ez da damutu. Ez du meritu txikia. Ikusten da: gustuko aldapan nekerik ez.

Martin ez da jubilatzerara etorri, lanera baizik, etorkizuna prestatzera:

*“Yo, al volver, no quería vivir del pasado, sino para preparar el futuro”.*

Martin Ugaldek 48 urterekin berriz hasi behar izan du Venezuelan egin zuen prozesua egiten, bertakotzen; kasu honetan, bergizarteratzen, berreuskalduntzen: ukatu zioten historia ikasi; hemengo zirkulotetan integratu (“Zeruko Argia”n, Euskaltzaindian); euskaraz jabetu maila altu batean, bere doai literarioak eta bere kultura gauzatzeko adinak tamainan.

Eta bere burua eta familia mantendu ekonomia aldetik. Kalbario dexentea.

Gainera, bere burua arriskutan zertan jarri ez zuen, baina politikan sartzea agintzen dio barrenak.

Bi etapa bereiztuko nituzke nik 1969tik hona: 1976 aurrekoa eta ondokoa. Alegia 1969/1976 eta 1976tik aurrera.

## Politikan batasun minex

Lehenengo aldian, Franco hil arte-edo, politikak pisu handia du bere lanean. Bi adieratan:

- a) Alderdiaren inguruan (barruan, noski) antolatzen da bere lana:
  - Ajuriagerraren taldekoa da, Barruko PNVren buruzagitzakoa, 1970
  - “Alderdi” barne boletinaren zuzendaria da, 1971

– PNVren ordezkaria da Eusko Jaurlaritzan, Leizaolarekin Kontseilari, 1971

b) Idazle bezala ere, ikuspegi politikoak gidatzen du neurri handi batean bere egitekoa: Historia idatzi zuenean agerikoa da intentzionalitate politikoa, abertzalea, eta ez du izkutatzen. Elkarrizketak antolatu zituenean, berdin, berak euskal kulturaz bere luma propioz esaterik ez zuena (debekatua baitzuen), besteen ahotan jartzen du, pedagogia politikoaren aldera. Eta *Las Brujas de Sorjin* idatzi zuenean ere interpretazio politikoa ematen ari da.

Bigarren aldian, Franco hil eta gero, politika alde batera uzten du (ala politikak uzten du bera?). Eman dezagun jende berria indartzen dela alderdian, eta politika egiteko moduak aldatu egiten direla. Martin Ugaldek ez du bere burua hor horrela ikusten. Politikariaren tipologia guztiz aldatzen da urte hauetan.

Gainera, Martin Ugalde ez da bokazioz eta anbizioz politikoa izan. Herriaren eta Alderdiaren premiak ikusita bere kontzientziak agintzen ziola aritu izan zen politikagintzan.

Are gehiago: Martin Ugalderen temperamentua ez da politikoa. Bere jarrera etikoa eta estetikoa da, ez politikoa.

Martin Ugalde batasun gizona da. Alderdi batean zein bestean egon, Martin Ugalde ez da alderdi-gizona, partiduzale itsu amorratua. Leiala bai, baina kritikoa ere bai.

Abertzaleon arteko tentsioak, etenak jasangaitz gertatzen zaizkio Martin Ugalderi. Asko sofritu zuen EAJ-EAren bereizketan, baina badu min askoz ere luzeago eta sakonago bat: 1960 ingurutik du min Martin Ugaldek abertzaletasunean gertatu den haustura hura dela eta. Alderdiaren barruan saiatu zen proposamenak eginez: gaztetu beharraz, inertzia astindu beharraz, gazteei entzun beharraz idatzi zuen, polemika-soka galantarekin.

ETAkoekin ere egon zen.

1964a zela uste dut. Caracasetik Iparralderaino etorri zen espreski, bidaja bere poltsikotik ordaindu eta oporrak horretarako hartuz, ETAko buruzagitzarekin egotera: Txillardegi, Benito del Valle, Irigarai eta Julen Madariaga. Alderdiak Beyrisen zituen batzuekin ere egon

zen: Unzeta, Solaun eta Eli Etxeberriarekin. Eta, noski, bere lehengusu Eusebio Zubillagarekin, hau baitzen zubigile kasu honetan.

PNV eta ETAREN artean hasi berria zen etena konpondu nahi izan zuen, berandu baino lehen. Alferrik. Min du hor.

Caracasera iritsi eta hau idatzi zion Andoni Astigarragari, Argentinan Euskal Etxeko Lehendakari:

“Ez nituen ezagutzen, aditzez ez. Aurrena Txillardegirekin egon nintzen; hiru euskal nobela baditu, eta on-onak gainera, eta ezagutzen nuen bere lanetatik. Gero laurak eta beste birekin. Jakin nahi nituen, ba, gizon horien asmoak. Euskaldun sutsuak dira, eta bere sendiek eta bere bereartekoek euskara hutsean egiten dute, nahiz eta batzuek euskaldun berriak izan eta zail egin. Orrek inpresio ona egin zidan. Gero, denak dira argiak eta langileak. Gorriak direla diote. Nik galderak garbi egin nizkien, eta holarikorik ez dagoela erantzun zidaten. Sozialistak, bai. Besterik ez. Gorri batzuekin hartu-eman batzuk izan dituztela? Bai, hizketaldi batzuek bai, aitortu zidaten, baina elkar ezagutzeko eta beren guganako asmoak ikusteko. Hemen ez daukat nik beren hitza baino neurri gehiagorik. Gaintzezan, nire ustez egin nahi dutena, alegia Euzkadi sutan jarri eta pixkanaka-pixkanaka gu, gure kixa, askatzen joan, horri ez diot nik bururik ikusten. Eta garbi esan nien gainera. Erromantiko xamarrek eta teori hutsarekin dabilzatenak iruditzen zaizkit. Orain, hortik aurrera beren kalterako gauzarik ez dut sinisten. Alderdia oso gogor jarri da beren aurka, eta nire ustez kalte izugarria egingo dio gure herriari. Badira hemen gorabeherak, eta badituzte ETAKOAK akatsak eta erresposabilitateak, baina baita Alderdiak ere; ez da aspaldin mugitu eta ez da aldatzeko biderik ere hartzen ari. Eta aldaketa, batek egiten ez badu, besteren batek egin araziko du; baina aldaketarik gabe ez da munduan biziko denik ezer geratzen ari. Nik gure arteko elkar jotze horiek ikusten ditudanean, Franco-k bere artean nabarrituko duen poza senditzen dut eztena bezala nire bizkarrean. Ez gaude, ez, lujo hau izateko garaian! Badago aurrean nor jo!”

Itsua ez bada bista motxekoa behar du Martin Ugalde partiduko gizontzat hartzen duena. Abertzalea eta euskaltzalea da, biak batera. Berak esaten duen bezala, Partidu bati uko egin dakioke, euskarari sekula ez. Honek espliketzen du bere traiektoria guztia.

### **Ajuriagerraren babesean**

Esana errepikatzea bada ere, komeni da azpimarratzea.

Martin Ugaldek bere bizitzan behin jan du hitza, behin bakarrik.



Caracasetik hona etorri ahal izateko jarri zioten baldintzari eman zion baietza. Alegia, politikan ez sartzeko agindu zioten, eta halaxe egingo zuela esan zuen, Euskal Herrian sartu ahal izateko. Damoklesen ezpartaren antzera funtzionatu dio beti debeku horrek. Eta halare, Martin Ugalde burubelarri sartuko da saltsa berritan.

Hiru modutara gutxienez, gorago aipatu bezala:

1) –1970ean Ajuriagerrak bere taldera deitzen du. Hauek zeramaten orduan barruko Alderdia: Juan Ajuriagerra, Gerardo Bujanda, Joseba Leizaola, Luis Mari Retolaza, Jokin Insausti, Martin Ugalde, Sabin Zubiri, Xabier Arzalluz (Madriletik etorri berria), Mikel Isasi, besteak beste.

Batzorde eraginkorra: Eduardo Estrade, Xabier Arzalluz, Martin Ugalde.

2) –1971n, “Alderdi” aldizkariko Zuzendari egiten dute Martin Ugalde. Ez dute onartu ez Beyris-eko taldeak eta ez “Agur”-ek. Sekularako harremana izan du lanpostu honetan Manuel Irujo-rekin. Gutunak eta eztabaidak lekuko.

3) –1971n, Leitzaolaren Eusko Jaurlaritzako Kontseilari izendatu du EAJ-k Martin Ugalde, Rezolaren ostean. Dimititu egingo du, urte batzuk beranduago.

## **Euskal idazle izatearen apostua, goizegi**

Euskaraz idatzi nahi

Venezuelara joan zenean ez zekien zer egingo zuen han.

Orain, bueltakoan, ustez badaki. Idatzi egin nahi du berak, eta euskaraz. Iada 1962an hartua zuen erabaki hori, Evanston-en.

Paul Leizaolak Venezuelan PNVren extraterritorialiteko Lehendakartzarako hautagaitza eskaintzen dio, erdaraz. Martin Ugaldek euskaraz erantzuten dio 1962an:

“Euskeraz egingo dizut. Euskaldunok euskeraz egiten ez badugu, nork egingo du ba?”

Egia esateko, nire buruari esana neukan orain horra bihurtzean idazlana besterik ez nuela egingo. Euskaraz idazteko gauza asko dauzkat buruan, umeentzat batez ere”.

Eta bere jaioterrira iritsi zelarik, hasi ere hasi zen. Euskaltzaindira hurbildu zen. Eta batez ere “Zeruko Argia”ra, idazle eta taldekide bezala. Hiru aldizkari zeuden orduan elkarren lehian: “Anaitasuna”, ezkerrekoa, Bilbon; “Zeruko Argia”, erdikoa, Donostian, eta geroxeago, “Agur”, eskuindarra Bilbon. Beyris-en, gogoratzen du Martin Ugaldek, “Agur” eukitzen zuten sarreran eta ez “Zeruko Argia”.

“Zeruko Argia”ko taldekide gisa, hauek gogoratzen ditu Martin Ugaldek: Gurutze Ansola, Antton Artamendi, Pako Garmendia, Ladislao Ezeiza, Gerardo Bujanda.

Baina hor ez dago dirurik, euskalgintzan ez dago dirurik inon. Martin Ugaldek berak ez du dirurik, ez baita indianoa. Bizibehar hau dela eta batetik, eta bestetik urgentziazko lanak bidera atera zaizkiolako, bere baitan duen “euskal idazleak” itxaron egin beharko du: 80ko hamarkadaren erdialdera hasten da Martin Ugalde euskaraz ekoizten. Eta gaur egun euskaraz bakarrik idazten du.

Esan nahi dudana da, lehenago, 10-15 bat urte lehenago, hasiko zela euskaraz osoki idazten “lanbide” hori “bizibide” bihurtzeko modurik izan balu. Martin Ugaldek diruagatik ez du inoiz lanegin, baina diru-iturririk gabe nekez mantendu liteke familia bat. Euskaraz idatzi ahal izateko, bekak ere eskatu zituen, baina alferrik. Martin Ugalderen 10 urte oparoenak galdu ditu euskal literaturak.

Euskal pedagogi lana erdaraz

Jatorri eta egokiera desberdinetan etorri zaizkio beste konpromisoak.

Martin Ugaldek, hona etortzean, bere burua atzendua ikusten du, eta informatu nahi du: historiaz, kulturaz, iraganaz, gaurkoaz jantzi beharra senditzen du. Ez dago ezer. Eta konturatzen da bera bezala dagoela jendea ere, informazio gabe. Berak idatzi behar. Lan pedagogikotzat hartzen ditu bere lanak. Horrela sortu ziren *Síntesis de la His-*

*toria del País Vasco* (1974) eta *Hablado con los vascos* (1974). Serie bat zan behar zuen honek. Oteizari ere elkarrizketa egin zion, baina publikatu ez. Chillidari egindakoa, bai, publikatu zuen (1975).

Sona handiko liburuak izan ziren hauek, baina Martin Ugaldek ezin izan du liburuon promozioan parte-hartu. Bada nahikoa desgrazia autore batentzat! Zergatik ezin izan zuen? Donibane Lohizunen zegoen errefuxiatua, Franco-k 1973an Estatu Espainiarretik egotzia. Donibanen dagoela ateratzen dira liburuok, eta *Las Brujas de Sorjin* ere bai, eta Martin Ugaldek ezin du Bidasoako muga honaldera pasa.

Gogoratu beharra dago, baita ere, zentsura zorrotza pasa zutela liburuok, halako autoreari eta halako gaiari zor bezala.

Mezenas txiki bat izan du lan hauek egin ahal izateko: Iñaki Zabalá, Donostian bizi den Getxoko etxe-erakitzaila. Aldi batean, hilero-ko soldata eman zion honek lan egin ahal izateko.

Francó hil eta gero, euskaraz bakarrik

–Oso berandu itzuli zen Donibane Lohizunetik Hondarribiko bere etxera Martin Ugalde. Franco hil eta ia urtebetera. Martin Ugaldek berak ez du kontaktzen baina Anamari emazteari entzuna diot nola PNVk ez zuen deus egin Martin Ugalde alde honetara ekartzeko. Inguruko guztiak pasatzen ari ziren, Santi Brouard horien artean, eta bera han. Emazteak lortu behar izan zuen muga pasatzea, Marcelino Orejaren bidez.

Autonomiaren garaia hasten da orain, eta aldi berri bat Martin Ugalderen lanean:

1) Ajuriagerraren eskutik oraindik bi izendapen ditu Martin Ugaldek.

- “Deia”-ko euskarazko atalaren sortzaile eta arduradun, eta zuzendariorde. Lagun hauekin antolatu zuen 1977an euskarazko taldea: Mikel Atxaga, Amatiño, Antton Aranburu, Auxtin Zubikarai. Lehendik zeuden Miren Jone Azurza eta Xabier Aranburu. Eta inposatu egin zioten Mendizabal txistularia.

Urtebete iraun zuen Martin Ugaldek esperientzia honetan. Dimisioa presentatu zuen ez zuelako ikusten bere ideien gauzaterik. Bi arrazoi nagusi: politikaren interferentzia, eta Zuzendaritzaren eta erdal kazetarien euskararekiko distantzia. Froga: Monzon - Xalbador. Gorordo zen Kontseilari Ordezkarari.

- Karlos Santamariak egin zituen ahaleginak eta Ajuriagerrak Kontseilu Nagusiko Boletina euskaraz egiteko enkargua eman zion. Martin Ugaldek Xalbador Garmendia hartu zuen horretarako. Sabin Oregi bere alderdikidearekin, edo hobe honen euskararekin izan zituen arazoak.

2) 1982an-edo Eusko Jaurlaritzan Euskara Arazoetarako Zuzendaritza hartzen du. Ez zen lanpostu altua, laugarren edo bosgarren kategorikoa dio berak, baina nola esan ezetz euskarari? Ordurako ezetza emana zien beste eskaintza politiko huts batzuei, eta gerora ere bai: alkate izateko, senatore izateko, parlamentari izateko. Euskararekin zerikusirik ez zuten eta...

3) 80ko hamarkadan euskaraz idazteari ekiten dio, lehentxeago azpimarratu bezala. Eta, abertzaletasunaren kausari laguntzeko eta ekonomikoki zuloak estaltzeko, zenbait "idazlan oso" antolatzearen ardura hartzen du bere gain, eta berauetako batzuen biografiak idaztea: Agirre, Leizaola, Arana Goiri, Aitzol.

4) 90ko hamarkada "Euskaldunon Egunkaria"-ko Lehendakari gisa hasten du. Abentura honetantxe elkar ezagutzen dugu, ondo eza-gutu ere.

Bere literatur obra eta bere lan periodistikoa euskaraz dira aurre-rantzean. Urte asko eman ditu Martin Ugaldek bide hau egiten. Zorionez, oraindik Martin Ugaldek ez du esan bere azken hitza. Oraintxe bertan bere azken elaberria inprimategian dago, Durangoko Azokarako ateratzekoa da.

## AMAIERA

Honenbestez, amaitzera noa. Saiatu naiz Martin zuei aurkezten. Erdizka baino ez dut asmatu. Martin Ugalde hobeto ezagutu nahi duenak bide bat baino gehiago du, eta guztiak elkarren osagarri:

–Martinen literatura irakurri, bertan bere bizitzatik eta bere pentsaeratik asko dago eta.

–Nire laguntzaz berak idatziriko “Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena” liburua irakurri eta bertako argazkiak ondo begiratzea ez ahaztu.

–Hondarribian bizi da eta egin bisita. Etzi egingo ditu 79 urte.